

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

AHOLKULARITZA JURIDIKOA

654/20 prozedura laburtuan epea jartzea

Behin-betiko bajaren ezespenaren aurrean eta Vitoria-Gasteizko Udaleko funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen hitzarmenaren 86. artikulutik 89.era bitartekoak eta lan-kontratudun langileei dagokien eranskina urtebetez bertan behera uzteko erabakiaren kontra aurkeztutako berraztertze errekurtsoa ezetsi zitzaioneko Giza Baliabideen zinegotzi ordezkariaren 2020ko irailaren 1eko ebazpenaren kontra 16241772T nortasun-agiriaren titularrak aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa —654/20 prozedura laburtua— izapidetzen ari delarik Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako 3. Epaitegia, bederatzi eguneko epea jarri da, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 49.1 artikuluan xedatutakoaren ildotik, bere interesetarako komenigarritzat jotzen badu bertara ager dadin, lege beraren 23. artikuluari jarraiki.

Epe-jartze formalaren balioa izan dezan, hauxe eman eta sinatzen dut.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko azaroaren 11n

Udal legelaria

RICARDO SOLAUN GONZÁLEZ